



Idiazabalgo
Udala

OHIKO UDALBATZARRA

2023ko irailaren 7an

LEKUA: Batzar gela

LEHENDAKARIA: Iñaki Alberdi Iparragirre (EH BILDU)

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Jone Ormazabal Zabaleta (EH BILDU)

Iñaki Arriaran Murgiondo (EH BILDU)

Ioana Prados Alustiza (EH BILDU)

Eunate Elio Cemborain (EH BILDU)

Jaione Munarriz Aramendi (EH BILDU)

José Agustín Urteaga Usandizaga (EH BILDU)

Patxi Mujika Olaizola (IZALBERRI)

Mikel Mujika Romero (IZALBERRI)

Aitziber Aizpuru Ceberio (IZALBERRI)

EZ BERTARATUAK:

Aimar Lizarazu Iztueta (EH BILDU)

IDAZKARIA: Garazi Arraibi Larrea

DEIALDIA: Lehenengoa

ORDUA: Hasiera: 18:00etan

1.- Aurreko Osoko Bilkuren aktak onartzea, hala badagokio

Ahobatez onartzen dira.

2.- Dekretuen berri ematea

Idazkariak Dekretuak zeintzuk izan diren azaldu ondoren, ez dago galderarik.

3.- Faktura zerrenden berri ematea

Izalberrik ondorengo fakturei buruz galdetzen du: elektrizitatea, Zerki eta Kalexka. Alkateak erantzuten du esanez elektrizitateari dagokionez faktura ugari daudela guztira 55 kuadru daudelako eta bakoitzarena bidaltzen delako. Bestalde, Zerkik ematen dituen zerbitzuak azaltzen dira eta azkenik, Kalexka Gazteleku zerbitzua burutzen duen enpresa dela argitzen da.

4.- 2023KOIR0003 (Xapolarunbatak) esleipena onartzea, hala badagokio

Kontratazio mahaiaren txosten negatiboa ikusita, ahobatez erabakitzen da lizitazioa hutsik deklaratzeko.

5.- Musika Eskola: 2021-22 eta 2022-23 erregularizazioak eta 2023-24 ekarpenen aurreikuspena onartzea, hala badagokio

Ahobatez erabakitzen da erregularizazioak eta aurreikuspena onartzea

MUSIKA ESKOLAKO ERREGULARIAZIOA ETA AURREIKUSPENA

2023ko uztailaren 20an Idiazabalgo Udaletxean batu da Musika Eskolako Jarraipen Batzordea.

Besteak beste, 2022/2023ko erregularizazioa errebasatuta, portzentaiak zuzenak ez direla ondorioztatzen da eta taulen errebisioa egitekotan geratu da Idiazabalgo Udala.

Hori horrela, portzentaiak 21/22ko ikasturtetik egoki aplikatu ez direla kontuan hartuta, dokumentu honetan jasotzen dira 21/22 eta 22/23ko likidazioak, Udal bakoitzak egin beharreko ekarpenak eta ondorioak. Azkenik, 23/24ko aurreikuspena azaltzen da.

1.) Lehen. 2021-2022 ikasturteko ekarpenen likidazioa eta egin beharreko ordainketak

	Hitzarmena	Idiazabal (%58)	Itsasondo (%7)	Zaldibia (%20)	Legorreta (%15)
Hasierako aurreikuspena	233.940,00 €	136.805,77 €	16.972,35 €	45.994,94 €	34.237,12 €
Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza	23.513,00 €	13.750,17 €	1.705,87 €	4.622,89 €	3.441,13 €
Likidatutako gastua	210.427,00 €	123.055,61 €	15.266,48 €	41.372,05 €	30.795,99 €

Udal elkarpenak (Ekainerarte)	221.185,61 €	123.055,61 €	17.010,00 €	34.370,00 €	46.750,00 €
-------------------------------	--------------	--------------	-------------	-------------	-------------

Aldea		0,00 €	-1.743,52 €	7.002,05 €	-15.954,01 €
-------	--	--------	-------------	------------	--------------

Idiazabalgo Udalak Itsasondoko Udalarari 1.743,52€ko ekarpena egingo dio.

Zaldibiako Udalak Idiazabalgo Udalarari 7.000,02€ko ekarpena egingo dio.

Idiazabalgo Udalak Legorretako Udalarari 15.954,01€ko ekarpena egingo dio.

Idiazabalgo Udalak Ordiziako Musika Eskolari likidazio ondorengo 729€ko faktura ordainduko dio.

2.) Bigarrena. 2022-2023 ikasturteko ekarpenen likidazioa onartzea eta ondorengo ordainketak egitea:

	Hitzarmena	Idiazabal (%62)	Itsasondo (%7)	Zaldibia (%19)	Legorreta (%13)
Hasierako aurreikuspena	235.620 €	146.084,4 €	16.493,4 €	44.767,8 €	30.630,6 €
GOVA dirulaguntza	23.382 €	14.496,84 €	1.636,74 €	4.442,58 €	3.039,66 €
Likidatutako gastua	212.238,00 €	131.587,56 €	14.856,66 €	40.325,22 €	27.590,94 €

Udal elkarpenak (Ekainerarte)	211.257 €	125.773,63 €	13.240,98 €	32.415,08 €	44.252,5 €
-------------------------------	-----------	--------------	-------------	-------------	------------

Aldea			1.615,68 €	7.910,14 €	-16.661,56 €
-------	--	--	------------	------------	--------------

Itsasondoko Udalak Idiazabalgo Udalarari 1.615,68 €ko ekarpena egingo dio.

Zaldibiko Udalak Idiazabalgo Udalarari 7.910,14 €ko ekarpena egingo dio.

Idiazabalgo Udalak Legorretako Udalarari 16.661,56 €ko ekarpena egingo dio.

Idiazabalgo Udalak Ordiziako Musika Eskolari likidazio ondorengo 981€ko faktura ordainduko dio.

3.) Hirugarrena.- ondorioak:

- **-Idiazabalgo Udalak Itsasondoko Udalari 127,84 €ko ekarpena egin behar dio.**
- **Zaldibiako Udalak Idiazabalgo Udalari 14.910,16 €ko ekarpena egin behar dio.**
- **Idiazabalgo Udalak Legorretako Udalari 27.237,62 €ko ekarpena egin behar dio. Kasu honetan kontuan hartu da 2023ko uztailean Idiazabalgo Udalak Legorretari ordaindu zizkion 5.377,95 €.**

4.) Laugarrena.- 2023-2024 ikasturteko ekarpenen aurreikuspena onartzea

26/07/2023	Hitzarmena	Idiazabal (%60,42)	Itsasondo (%8,16)	Zaldibia (%19,34)	Legorreta (%12,08)
Urteko hasierako aurreikuspena	244.055 €	147.465 €	19.907,78 €	47.188,80 €	29.493 €
10 hilabetetako aurreikuspena	24.405 €	14.746,5 €	1.990,78 €	4.719 €	2.949 €

Idiazabalen, 2023ko abuztuaren 29an.

6. Musika Eskola: Hitzarmena onartzea, hala badagokio

Ahobatez erabakitzen da Hitzarmena onartzea

Idiazabal, Itsasondo, Legorreta eta Zaldibiako udalen arteko lankidetzaz hitzarmena, musika eskola zerbitzua kudeatzeko eta finantzatzeko.

Idiazabalen, 2023ko irailaren 8an

BILDURIK

Iñaki Alberdi Iparragirre J., Idiazabalgo alkate-udalburua.

Iñaki Aizpuru Oiarbide J., Itsasondoko alkate-udalburua.

Iñaki Agirre Jauregi J., Legorretako alkate-udalburua.

Ioritz Berra Juaristi J. Zaldibiako Alkate-udalburua.

Egintza honetan fede ematen dute udal horien Idazkari-kontu hartzaileek.

AURREKARIAK

Lehenengoa. 2018ko apirilaren 12an GAO-n argitaratu zen lau Udalerriek sinatutako Hitzarmena musika eskola zerbitzua kontratatu, kudeatu eta finantzatzeko.

Musika irakakuntzaren zerbitzuen kalitateari eusteko eta funts publikoen kudeaketa kontrolatzeko, udal hauek erabaki zuten erakunde pribatuei diru laguntzarik ez ematea, eta musikaren irakaskuntza zerbitzua modu zuzenean kudeatzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 85.2 artikulua eta Tokiko Erakunde Zerbitzuen Araudia onartzen duen 1955eko ekainaren

17ko Dekretuaren 67.1 eta 68 artikuluen arabera.

Tokiko araudiak eta hezkuntzako araudi sektorialak eskumena aitortzen die tokiko administrazioei musika-eskolak sor tzeko eta irakaskuntza ez arautuaren zerbitzu hori finantzatzeko.

2020ko uztailaren 24an zerbitzua emateko lizitazioa argitaratu zen Kontratazio Profileen.

Bigarrena.- 2020ko azaroan Ordiziako Musika-eskolarekin sinatu zuten lau udaletxeek kontratua, izan ere, azken hori izan zen lizitaziora aurkeztu zen bakarra eta ordutik zerbitzua ematen dabilena. Kontratu horretako 5. klausulan jasotzen da kontratuaren iraupena bi urtekoa izango dela, 2022ko ekainaren 30ean bukatuko dela eta hiru urte gehiagotan luzatu daitekeela. Beraz, 2025ko ekainaren 30erarte luzatu daiteke kontratua.

Zerbitzua emateko erari dagokionez, betetzen ari dira aurreko Hitzarmenean eta lizitaziorako pleguetan jasotakoak.

Hirugarrena.- 2018ko Hitzarmena eta 2020ko kontratua kontuan hartuta, lau udaletxeek adosten dute lankidetzaz-hitzarmen hau izenpetzea, ondorengo xedea duelarik: Idiazabal, Itsasondo, Legorreta eta Zaldibiako udalerrietako herritarrei zerbitzu bateratua ematen jarraitzea.

Zerbitzuaren kontrola kontratuaren esleitzaila den udalak, Idiazabalgoak, gauzatuko du, hitzarmen honetan xedatuko denaren arabera.

Halaber, jarraipen batzorde bat eratuko da udal guztien jarraipena ahalbidertzeko.

Hitzarmen honen jarraipenerako tresnak eta irizpideak finkatuko dira dokumentu honetan.

Laugarrena.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikulua kudeaketa mandatua arautzen du.

Bosgarrena.- Honako hauek dira hitzarmen honen manu arautzaileak: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulutik 53. artikulura bitartekoak; Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikulua eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 100. artikulua, Tokiko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak tokiko zerbitzu publikoetan edo guztiontzako intereseko gaietan elkarrekin adosten duten lankidetzaz ekonomiko, tekniko eta administratiboa arautzeko lankidetzaz-hitzarmenei dagokienez.

Aipatutako aurrekariak kontuan hartuta, lankidetzaz hitzarmen hau adostu dute, jarraian zehazten diren estipulazioen arabera:

ESTIPULAZIOAK

Lehenengoa.- Xedea.

Hitzarmen honen xedea da Idiazabal, Itsasondo, Legorreta eta Zaldibiako udalen arteko lankidetzaz esparruarekin jarraitzea, beren udalerrietako ikasleei musika eskola edo musika irakaskuntza ez arautuaren zerbitzu bateratua emateko.

Bigarrena. Zerbitzuaren kudeaketa

Hitzarmenean aurreikusten den kudeaketaren ardura, era txandatua gauzatuko dute hitzarmena izenpetzen duten udalek, beraiek adosturiko ordena eta iraupenaren arabera. Idiazabalgo Udala izango da kudeaketaren arduraduna, bestelakorik esaten ez den bitartean.

Dagokion Udalak kudeaketa-mandatua egikaritu bitartean eskuratu ahal dituen datu pertsonalen tratamenduaren ardura duna izango da, eta datu pertsonalen babeserako araudian xedatuta dagoena aplikatuko zaio.

Hirugarrena.- Jarraipen Batzordea

Hitzarmen honetan araututako Jarraipen Batzordeak, urtero, honako hauek xedatuko ditu:

- Zerbitzuaren ezaugarri nagusiak.
- Zerbitzuaren gehieneko kostea.
- Ikasleek ordaindu beharreko prezioak.
- Zerbitzua eta kontratazioa aldatzeko beharrezkoak diren beste elementu batzuk.

Batzordean lau udal bakoitzaren bi ordezkari egongo dira: Alkate udalburua edo berak izendutako ordezkari pertsona, eta Idazkari Kontu hartzailea edota Hezkuntza gaietarako Teknikari arduraduna edo bere ordezkaria. Halaber, Batzordeak egiten dituen bileretan zerbitzuaren koordinazioa burutzen ari den udalaren Idazkariak parte hartuko du, fede publikoa emateko.

Organo horrek bere kideen gehiagoren bidez hartuko ditu erabakiak, eta gutxienez, sei hilabetean behin

bilduko da.

Ados egon ezean, desadostasun-agiria jasoko da, baino udal bakoitzak hartzen dituen erabakiak berehala exekutiboak izango dira.

Erabaki horiek administrazio-bideari amaiera emango diote eta berorien aurka administrazio-auzialdiarako epaitegian errekurtsoak jarri ahalko dira.

Jarraipen Batzordeari, berriz, zeregin hauek dagozkio:

a) Kontratuaren exekuzioan zehar, aldaketak, interpretazioak, edo bere kasuan, deuseztapenari eta kalte ordainen buruzko proposamenak aurkeztea edo informatzea.

b) Idiazabalgo Udalak onetsitako zerbitzu-ziurtagirien berri izatea, eta zerbitzuaren urteko txostenaren berri izatea.

c) Zerbitzua emateagatik udalek onartu behar dituzten prezio publikoak proposatzea, ordenantza fiskalak onartu aurretik. Halaber, zein jarduketa finantzatuko diren eta horretarako alderdi bakoitzak zein portzentaje ekonomiko ordainduko duen proposatuko ahal izango du. Hori guztia, hitzarmen honetako gainerako klausulak kontuan izanik.

d) Hitzarmenean ezarritako gainerako zereginak eta, oro har, hitzarmenari edo kontratuaren gaineko legeriari dagozkien bestelako kontuak koordinatzea eta haietaz informatzea, baldin eta batzordeko kideen ustez beharrezkoa bada, edo hitzarmeneko alderdietako batek proposatzen badu.

Beharrezkoa izango da Jarraipen Batzordearen idatzizko akordioa zerbitzuen prestazioak aldatzeko, zerbitzu osagarriak ematea erabakitzeko edo kitapenak onartzeko, horiek hasieraz aurreikusitako gastuaren % 10eko igoera ekartzen badute.

Hitzarmen honek edo bere betearazpenak sor ditzaketen interpretazio arazoak Jarraipen Batzordeak ebatziko ditu.

Laugarrena.- *Ekarpenen kalkulua eta ordainketa*

Kudeaketa dagokion Udalak Musika-eskolatik jasotako aurreikuspena bidaliko die gainontzeko udalei eta horren arabera, Udal bakoitzari dagokion kantitatea Udal Kudeatzailean ingresatuko dute, Idiazabalgo Udalean.

Uztailean, Musika-eskolatik likidazioa jaso eta erregularizazioa burutuko du Udal kudeatzaileak, eta hori hurrengo ikasturteko aurreikuspenarekin batera bidaliko die gainontzeko Udalei.

Bosgarrena.- *Hitzarmenaren izaera eta araubidea.*

Hitzarmen honek administrazio izaera du. Administrazio publikoen arteko lankidetzak hitzarmenei aplikatu beharreko antolamendu juridiko eta administratiboaren arabera interpretatu eta garatuko da.

Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51.2 c) letran ezarritakoari jarraituz, sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak betetzen ez baditu, hitzarmena azkendu ahal izango da.

Seigarrena.- *Hitzarmenaren ondorioak eta iraupena.*

Hitzarmenak ez dakar alderdi jarduleek euren eskumenei uko egitea ezta eskumenok aldatzea ere. Alderdi jarduleek hitzarmena sinatuz berez sortzen diren erantzukizunak soilik onartzen dituzte.

Kontratazio, ondarezko edo beste edozein erantzukizuna eskatzeko espedienteak izapidetuko ditu Idiazabalgo udalak, gainontzeko udalei audientzia emanez. Hala ere, udal bakoitzak izango du dagokion kalte ordainen ordainketari buruzko eraba kia hartzeko ahalmena, bere udalerraren esparruan.

Hitzarmenak, sinatzen den unetik, alderdi jarduleak behartuko ditu eta ondorioak izango ditu.

Hitzarmenaren iraupena, 2025eko ekainaren 30artekoa izango da. Hala eta guztiz ere, sinatzaile guztiak ados jarrita, hitzarmena azkendu ahalko da.

Zazpigarrena. *Hitzarmena azkentzea.*

Aurreko klausulan adierazitako indarraldia bukatzeagatik, edo suntsiarazi delako, azkenduko da hitzarmena. Alderdietakoren batek hartutako konpromisoak ez baditu betetzen, besteak ahalmena du konpromiso hori betetzeko agintzeko edo hitzarmena suntsiarazteko eskatzeko.

Zortzigarrena. *Publizitatea.*

Hitzarmenaren formalizazioa eta haren aldaketa zein azkentzea Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta udalen Gardentasun atarian argitaratuko dira.

Eta guztiarekin bat datozela agertzeko, hitzarmen hau izenpetzen dute goian adierazitako egunean eta tokian.

Idiazabalgo Alkatea

Itsasondoko Alkatea

Zaldibiako Alkatea

Legorretako Alkatea

7. Galderak eta eskaerak

- Izalberrik galdetzen du ea zertan gastatu behar diren azkeneko Kreditu Aldaketan festetarako sartu ziren 25.000 euro eta Alkateak erantzuten du San Inazio, San Miguel eta Urtsuarango jaietarako izango dela. Gainera, gogorarazten du San Blasetan uste baino gehiago gastatu zela eta likidazioan zehaztuko direla zeintzuk izan diren gastuak.
- Kultura teknikariak lanera itzultzea eskatu duela komentatzen da. Udaletik eskatu zaion dokumentazioa aurkeztu behar du egoera zein den aztertu ahal izateko.
- Udan zehar egon diren “bandalismo” kasuei buruz galdetzen du Izalberrik. Egoera horiek noizean behin errepikatzen direla azaltzen du Alkateak eta nortzuk diren jakiten denean, kargu hartzen zaiela.
- Arimasagastiko etxe batetik pertsona bat kaleratuko da. Egoera zein den aztertuta ez da emergentziako etxea kasu horretarako erabiliko.

Eta beste ezer esatekorik ez dagoela, Bilkura 19:15etan bukatzen da.

Alkatea

Idazkari-Kontuhartzailea